

EUSKAL PROSA IDATZIAREN HITZ ORDENAZ (2012-02-24)

1. SARRERA

Bazen garaia Euskaltzaindiak hitz-ordenaren gaia jorratzeko, euskal sintaxiaren gai zentrala delako. Eta hitz-ordenaren gaia nik batez ere euskal prosa idatziaren eremuan kokatuko dut, prosa arrunt eta baita teknikoaren eremuan. Eta Hegoalde honetan, gutxi baitakit Iparraldeko gaurko idazkeraz. Nire ikuspuntua euskal irakurle pixkat ikasiarena izango da, testuek oztopo aipagarririk gabe korritu dezaten espero izan ohi duen irakurlearena.

2. PELLO ESNALEN PLANTEAMENDUA

Ni, oro har, erabat ados nago liburuko tesiekin. Badira gogoeta batzuk bereziki gustatu zaizkidanak:

- Hizkuntzaren erabilera ikuspegi komunikatiboa (estrategikoa) lehenestea.
- Euskararen hitz-ordenan askatasuna aldarrikatzea.
- Tradizioan purismoak eragindako etenean arreta jartzea, eta abisatzea: hitz-ordenaren inguruan, “ez dezagun orain euskara batuaren izenean egin lehen garbizaletasunaren izenean egindakoa”.
- Bi hitz-ordena ereduaren erabilera onartzea, beharizan komunikatiboen arabera, prosa idatzi arruntari dagokionez bereziz kontaketak, prespripzioak, performazioak, deklarazioak, definizioak...

Badira, hala ere, nik pixkat matizatuko nituzkeen kontsiderazio batzuk:

- *“Galdegaiak berez ez du zerikusirik hitz-ordenarekin”* (52. or.). Ondo dago teoriarik bereiztea hitz-ordena (hizkuntza, morfosintaxia) eta galdegaia (hiztuna, komunikazioa), baina nire ustez praktikan erlazionatu daitezke bi planoak, eta agian erlazionatu beharra dago. Aspaldi honetako prosa idatzian, enfasia adierazteko, hitz-ordenaz baliatzen gara normalean.
- *“Ez galdegaiak ez ustezko galdegaiak dute toki jakinik esaldiaren baitan. Azentuak markatzen du galdegaia, eta ez esaldiaren baitako kokapenak. Idatzian testuinguruak laguntzen digu galdegaia atzematen”* (53. or.). Hitz-ordenaren gaia euskara osotasun modura hartuta jorratu du, eta ondo dago hala egitea gauzak erlatibizatzeke. Baina nire ustez gai hau behar da planteatu batez ere euskara idatzian, eta haren barruan prosa arruntan, batik bat kontuan harturik euskarazko eskolarizazio masiboa. Ez dugu ahaztu behar euskara batua, batik bat, idatzirako eratu dela. Eta idatzian kodeak agian estuagoak izan ohi dira. Nire ustez, testuingurua ez da aski prosa idatzi arruntan enfasiak aditzera emateko.
- *“Handia da malgutasuna euskaraz enfasirik gabeko esaldietan (hau da, gehienetan). Esaterako: 'Ume guztiak zuzenean ura edatera iturrira joaten dira'. [Perpauaren beste hiru aldaera] Eta denak dira esanahiz baliokide, enfasirik ez dagoenean”* (83. or.). Enfasia bai, enfasia ez bereizketa ere egiten da, aditzera emateko badirela galdegairik gabeko perpauak eta horietan hitz-ordena bat baino gehiago erabili daitekeela. Baina nire ustez gizakiek, bizitzako plano

orotan, etengabe aukerak eginez, etengabe posizionatuz jokutzen dugu ezinbestean, eta hizketari dagokionez ere bai. Baliteke mailak egotea enfasitasunean, baina zaila egiten zait batere enfasirik gabeko, batere fokorik gabeko adierazpenak irudikatzen. Nire iritzian, adierazpen ustez neutroetan ere, ustez “faktual” hutsetan ere, aukera egiten dugun adierazi bat edo besteren alde.

3. JUAN GARZIAREN ORDENAMENDU EREDUA

Faltan bota dut Corpus Batzordeak Garziaren “Joskera lantegi” (IVAP, 1997) liburuaren aipurik ez egitea. Nire gusturako, berea da hitz-ordenari buruz aspaldian egin den proposamenik integralena eta onena. Eta kontua da Garziaren planteamendua, funtsean, bat datorrela Corpus Batzordearenekin, ordenamenduari dagokionez gramatika eta komunikazioa bereiztean eta giltzarria batez ere helburu komunikatiboetan jartzean. Badute, ordea, diferentzia bat asmoetan: Corpus Batzordea bi hitz-ordenetako baten erabateko nagusigoa borrokatzera eta bien zilegitasuna erreibindikatzera datorkigu, hau da, mugak zabaltzera, eta Garzia, berriz, oinarrizko ordena bat proposatzera prosa idatzirako, hau da, patroi berri bat sujeritzera.

“Hain aipatuak diren SOV nahiz SVO segida edo tirada zurrunaren eta haren aldaeren ikuspegia baino egokiago dirudi euskaraz zerbait berez ere alda-errazagoa eta moldagarriagoa (dinamikoa, alegia) hartzea ordenamendu-eredutzat. Nire irudimenean dabilena eta azalpenetan ere erabiltzen saiatu naizena ardatzarena da. Ardatz hori aditza dateke, eta haren inguruan pibotatzen dukete gainerako elementuek. Elementu bakoitzaren aditz-pibote horrekiko posizioa mintzagai/galdegai/perpau-abar jokoaren arauak gobernatzen dutela dirudi euskaraz, kategoria gramatikalek baino areago (hots, enfasi adierazkorrak pisu berezia duela, sistematikoa, azaleko ordenamenduan)”. (211. or.)

“Honako eskema hau jotzen dugu ohikoen eta egokien baieztoko perpau nagusi enuntziatiboei dagokienez:

Mintzagaia (,) Galdegaia Aditza Perpau-abarra (,) Esaldi-abarra” (225. or.)

“Kontraste eta enfasi jokook garrantzia galtzen dutenean (hots, perpau nagusitik urrundu ahala, edo perpau nagusiak neutrotasuna bilatzen duenean), bada ordenamendu oinarrizko, lineal, neutro bat, zeinaz esan daitekeen gauzarik seguruena perpauak aditza amaieran eraman behar duela baita (atzizkiak erantsi ahal izateko, besteak beste)”. (226. or.)

Eta mailaketa moduko bat egiten du perpau nagusian hasi eta perpau menderatuen artean, aldagarritasunetik aldagaiztasunera, ordenamendu dinamikotik ordenamendu zurrunera.

Garziaren ereduan, nik zehaztasun gehiago nahiko nuke mintzagaiaren kontzepzioaz eta mintzagaiak har ditzakeen formez; zehaztasun gehiago, orobat, jakiteko euskaraz zernolako formulazio konketuak diren enfasi edo kontrasterik gabeak, hots, neutro edo ez-markatuak.

4. NIRE IKUSPUNTUA

Garziaren ildotik, uste dut aditzaren zentralitateak markatzen duela perpauseko ordenamendua, eta aditzaren posizioari dagokionez maniobra-tartea dagoela, murriztuz doana perpaus nagusitik hasi eta erlatibo burudunetara arte gradazio batean. Horren harira, aditz aurrea nolabait gune markatua izango litzateke, fokoa adieraztekoa.

Alabaina, adierazpen batzuetan aditza aurreratu egin ohi da beharrian komunikatiboen arabera. Aurreratzearen zioa izan ohi da adierazpena aditzaren beraren inguruan eratzea (ekintza narratiboen seriea, formulazio performatiboak), ondoko adierazpenaren konplexutasuna (esaldi deklaratiiboak, definizioak eta klasifikazioak) edo ondoko adierazpenari garrantzia ematea. Alabaina, halako kasuetan, aditz aurreko posizioa beste hitzen batek okupatua dagoenean, komeni da posizio hori nolabait neutralizatuta uztea, ekibokoak saihesteko (deklaratiiboetan, "ezen" lokailua erabiliz eta "-la" menderagailua aurreratuz; definizioetan "bat" + aposizioa erabiliz"; aditz lokuzioak eta esamolde finkatuak baliatuz).

Beraz, nire ikuspuntuan, esaldi enuntziatibo arruntei dagokienez erreferentziako ordena galdegai (euskarri) + aditza izango litzateke, baina ordena hori hautsi ahal izango litzateke, aditza aurreratuz, beharrian komunikatiboek eskatzen duten oro. Hitzunaren helburu komunikatiboen gailentasuna erakusteko, badira bi adibide eder Corpus Batzordearen liburuan aditzaren aurreratze ausartarenak: "Piztuerako Pazkoa ospatzea da...[azalpen batzuk]" (112. or.) eta "Joseba zen... [datu batzuk]"(Andoni Egaña, 95 or.).

5. DEFINIZIOAK

Definizio petoei dagokienez, Deustuko Unibertsitateko lege-bilduma elebidunekoek hasi ziren lehenik aditza aurreratzeko (Kode Zibila, 2004). Garzia ere lizentzia hartzearen aldekoa zen, baina nolabait Euskaltzaindiaren berrespena eskatzen zuen. Patxi Petrirena "Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak" liburuxkan (EIMA, 2011) zalantziatiago agertzen da ("arriskutsua deritzogu inolako markarik gabe galdegai-sistema hausteari" (227. or.), eta aditza aurreratzekotan, bi puntuak erabiltzeko gomendatzen du, Garziak bezala. Nik ere hemen, definizio peto konplexu samarren kasurako, lizentzia hartu eta aditza aurreratzearen alde agertu nahi dut, beharrian komunikatiboengatik. Hona hemen arrazoiak:

- Definizioak osotasun sintaktiko-semanticoko bat eratzen du eta ondorioz multzo bakar jarraitu batean eman behar da (ez da komeni aditzaren bidez zatitzea).
- Garapen tematikoaren aldetik definizioa beharrezkoa izan ohi da, jenerikotik espezifikora doana (multzo bakar horretan mailaketa egitea komeni da).
- Definizioa baliabide linguistiko hutsez ematera jo behar da ("hau da" / "zera da" errekurtsu erretorikoak dira, ez linguistikoak).

Bestela esanda, sistematika baten barruan, egiturak komunikazio-beharrianetara moldatu behar dira, behar denean nolabait lizentziak hartuz. Honetan ez dago gaizki gogoratzea Corpus Batzordeak SAO hitz-ordenari buruz esandako gauza bat: "*SAO ereduaren gauza izan zen sortzeko hitz-kate luzeak (eta nazioartean darabilen prosaren antzekoak)*"(74. or.)

Bi adibide, eredu honi jarraituz eratuta:

“Landetxeak dira establezimendu batzuk dagokion landa-eremuko berezko arkitekturako eraikinetan kokatuta daudenak eta prezio baten bitartez, mantenuarekin edo mantenurik gabe, ostatu-zerbitzua ematen dutenak”. (Turismoaren legea)

“Inklusio aktiboko hitzarmenak dira dokumentu ireki eta dinamiko batzuk, zeinek inklusio-prozesu pertsonalizatu bat diseinatzen duten, titularraren edo bizikidetzaren unitateko beste kide batzuen beharretara egokitua, eta zeinek parte-hartzaileei konpromiso bat eragiten dieten, obligazioak dakartzana”. (Lanbideren legea)

6. ADIERAZPENAREN BALDINTZA FISIKOAK

a) FORMEN ETA EDUKIEN KONTRASTEAK

Adierazpen linguistikoak, normalean, kontrastean oinarrituta eratzen ditugu. Badugu esaldia, eta haren barruan mintzaldiak eta isilaldiak. Mintzaldien artean baditugu multzo sintaktiko-semanticokoak (perpausak), eta horien barruan azpimultzo sintaktiko-semanticokoak (sintagmak). Multzoen barruan gailur bat egon ohi da normalean (aditz aurrea + aditza), beste elementuetatik berezia. Komunikazioa bermatzeko, komeni da unitate hauek guztiak modu egokian oposatuta eta hierarkizatuta antolatzea, argi eta erraz dekodetzeko eran.

b) UNITATEEN KOPURU MUGATUA

Testuak korritu ahal izateko, beharrezkoa da esaldiaren barruan ez pilatzea gure hurbileko memorian gorde ditzakegun baino unitate sintaktiko-semanticoko gehiago (edukien muga).

c) EUSKARAREN GORANZKO ORDENA

Euskararen egitura goranzkoa da gehienbat, buztanetik burura doana, zirkunstantziatik erreferentziara (izenlaguna+izena, galdegaia+aditza), eta kontzeptuen errepresentazio-prozesuak, aldiz, beheranzkoak izan ohi dira normalean. Egituren eta nozioen arteko oposizio honegatik, komeni da euskaraz hitz-segida arinak edo ez oso dentsuak eratzea izenaren eta aditzaren ezkerrean.

Erredaktore-ofizioaren ikasketa, besteak beste, baldintza fisiko horiez jabetzea da: batetik, forma eta edukien kontrastea, eta bestetik edukien dosifikazioa, euskararen kasuan egituraz mugatua. Denbora gutxi daramagu euskal prosa arrunta modu masiboan lantzen (eskolarizazioa, komunikazioa) eta agian normala da disfuntzioak gertatzea. Disfuntzio nagusietako bat, eremu batzuetan, gehiegizko trinkotasuna da, aditzaren posizio desegokiak eta sintagmen luzera desegokiak eragina.

7. ADITZAREN POSIZIOA

Hitz-ordenaren auzia aditzaren posizioaren inguruan zentratzen dute autoreek eta estilo-liburuek. Kontu honetan uste dut dena esanda dagoela eta ez naiz luzatuko. Bakarrik nahi dut esan kontsigna izan beharko litzatekeela ezen, mintzagaiaz aparte, ordena galdegaia + aditza izatea, hots, aditza ahalik gehien aurreratzea, erreferentzia sintaktiko-semanticoko bihurtu dadin. Noski, handia da jokaera-tartea eta zilegi da aditza atzeratzea ere, baina jokabide batzuk funtzionalagoak dira beste batzuk baino. Egia esan, oraindik

zurruntasuna nabari da egungo testu idatzi batzuetan, hala hezkuntzan eta hedabideetan nola mundu juridikoan, tematuki aditza azkenera eramanez.

Testu-liburuak

“Errimak, bere historia osoan, ingurukoekin borrokatzeko, edo bereganatutako lurraldeak mantentzeko, armada garrantzitsu baten beharra izan zuen”.

“Kolonian horiek nekazaritza eta merkataritza arloko jardueretan aritzeko Greziatik kanpo sortutako eta antolatutako hiriak edo polisak zirela esan dezakegu”.

Idatzizko hedabideak

“Osasun sistema publikoa eta erien arretaren kalitatea arriskuan dagoela ohartarazteko Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako medikuen elkargoek herenegun kaleratutako manifestuarekin ez dago ados Rafael Bengoa”.

“Ikastaroa amaitutakoan, formazioarekin lotura duen lehen lan eskaintza onartzera behartuta egongo dira”.

“Sarkozyk langabezia sarietan ‘iraultza moduko bat’ egin nahi duela dio”.

Testu juridikoak

“Gobernuak I. zenbakian aipatutako ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioan euskara eta gaztelania batera erabil daitezten sustatuko du”.

(Eginkizunak) *“Kontsumoaren arloan berariazko eginkizunak dituzten langileentzat prestakuntza eta hobekuntza sistema bat eratzeara”.*

7. SINTAGMEN DENTSITATEA

Komunikazioaren aldetik, hobe da formulazioak unitate dekodegarrietan, ez oso luzeetan egituratuta ematea. Noski, mailak daude trinkotasunean, eta beti ere zilegi da formulazio trinkoak eratzeara, baina egia da, bestalde, formulazio trinko batzuk ez direla funtzionalak. Ez da ahaztu behar, gainera, euskarak egituraz duen goranzko ordena, zirkuntzantziatik erreferentera doana, dekodetzen zailagoa dena. Beraz, badira hor logika batzuk eta muga batzuk kontuan hartu beharrekoak.

Kontu honi dagokionez, uste dut idatzizko hedabideetan hobeto gabiltzala, testu-liburu batzuetan eta testu juridiko batzuetan baino. Testu juridikoetan, nahiz eta aurreratzen goazen, konbinazio mortala osatzen dute oraindik, hainbat kasutan, aditzaren atzerapenak eta sintagmen trinkotasunak.

Testu-liburuak

“Historiaurreaz ari garenean, ezin utzi aipatu gabe Euskal Herriko antzinako aztarnak aztertzen aitzindari izan zen On Joxe Migel Barandiaran ataundarra”.

(Magistratuak) *“Estatuko hainbat lan egiteko urtebeterako aukeratutako senatariak ziren”.*

Testu juridikoak

(Funtzioak) *Lege-mailako xedapenek ezarritako kopuru-mugara arteko administrazio-zigorrak ezartzea“.*

“Liburu honetan xedaturiko moduan ondasun edo zerbitzuek sorturiko kalte edo galeren kalte-ordaina jasotzeko eskubidea du kaltetun orok”.

“Nahitaezko segurtasun-markarik ez duten edo ondasunaren erantzulea zein den jakiteko gutxieneko daturik ez duten ondasunak hornitzeko debekua”.

Euskal prosa idatziak baditu, eremu batzuetan, beste aje batzuk ere kontuan hartu beharrekoak, zeharreko eragina dutenak hitz-ordenan (kontraste-joko gutxiegi egitea kategoria eta marken artean, izenondo erreferentzialak gutxiegi erabiltea, aditzizena kontzeptualizaziorako gehiegi erabiltzea, lokarri prepositiboak gehiago bultzatu beharra –espezialitate-hizkeran esamolde prepositibo berriak ere sortuz–, arnasaldi edo pausaldien urritasuna, mintzagaia batzuetan behar adina ez markatzea eta abar), baina beude beste baterako.

Amaitzeko, uste baitut Euskaltzaindiaren arduetan, hizkuntzaren zuzentazunaz gainera, agian prosa-eredu bat bultzatzea ere badagoela eta uste baitut, orobat, euskararen erabiltzaileok Akademiaren esanak zintzo eta kontsignak bailiran betetzen ditugula, hitz-ordenaren kontu honi dagokionez komeniko litzateke Euskaltzaindiari eskatzea sendetsi ditzala zenbait lizentzia (deklaratiboak, definizioak, klasifikazioak) eta aldeztu zenbait komenientzia (aditzaren zentralitatea, sintagmen arintasuna), beti ere argi utzirik joskera askatasunaren eremua dela.

Jesus Maria Agirre Berezibar